

ZER DA GAZTEMATIKA?



AURKIBIDEA

ZER DA GAZTEMATIKA?	3
Helburuak	5
Haurren eta gazteen sustapena	6
Sistema publikoa	8
Eskaintzen dituen zerbitzuak	9
Antolaketa	12

ZER DA GAZTEMATIKA?

Dokumentu honek Gipuzkoako gizarteari **Gaztematika** modu erraz batean aurkeztea du helburu, haren xedeak, jarduerak eta antolakuntza ezagutzera emateko.

Gaztematika Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema izendatzeko erabiltzen dugun izen laburra da. Hemen aurkeztuko dugun sistema 2008an eta 2009an egindako hausnarketa-prozesu baten emaitza da. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako prozesu horretan haurren eta gazteen esparruan lan egiten duten udal-teknikari ia gehienek parte hartu dute, bai eta bestelako profesionalak eta erakundeek ere.

Prozesu horren ondorioz dokumentu bat landu zen, 2010. urtean jendaurrean aurkeztu zena eta EUDELeK (Euskadiko Udalen Elkarte) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu zutena. Horren ondoren Gipuzkoako 59 udalerrri atxiki zaizkio dokumentuari.

1. grafikoa. Gaztematikan parte hartzen duten udalak



HELBURUAK

Askoren arteko jarduera-sare egonkorra da; izan ere, Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Udalek osatzen dute, beste gizarte-eragile batzuen parte-hartzearekin, eta elkarri lotutako oinarrizko bi helburu lortu nahi ditu:

1. Norbere autonomiarako bidean haurrak, nerabeak eta gazteak beren astialdian gaitu eta laguntza ematea hezkuntza ez-formalaren bitartez;
2. Haurrek, nerabeek eta gazteek haurtzaroa eta gaztaroa, alegia gozatu, esperimentatu eta heltzeko diren eta helduaroaren oinarri diren aldiak, beren osotasunean bizi ditzaten laguntzea.

Horrek esan nahi du Gipuzkoako haur eta gazte guztiei gaikuntza, laguntza eta baliabideak eman behar zaizkiela erantzukizun publikoko zerbitzuen bitartez. Zerbitzu horiek honako hauek barnean hartu eta bateratu behar dituzte: informazioa, orientabidea, bide-laguntza, aisia hezitzailea, partaidetzarako bideak eta kultura-sorkuntzarako eta -produkziorako bideak.

Horrek guztiak eragina du, argi eta garbi, haurren eta gazteen egungo eta etorkizuneko bizi-baldintzetan, bai eta nork bere autonomia lortzeko ibilbidean arrakastaz aurrera egiteko behar dituzten oinarrizko gaitasunen garapenean ere. Hala, gainera, beren gizartearekiko konpromisoa duten herritarrak hezten ari gara aldi berean.

HAURREN ETA GAZTEEN SUSTAPENA

Jakina, helburu horiek ez dira **Gaztematikarenak** bakarrik; modu desberdinetan bada ere, hezkuntza-sistemarekin, osasun-sistemarekin eta gizarte-zerbitzuen sistemarekin ere partekatzen ditugu.

Gaztematikak, ordea, bere ardatza haurren eta gazteen sustapena izatea du bereizgarri. Hau da:

- a) babesera eta prebentziora orientatutako gizarte-politikako beste sistema batzuek ez bezala, haurrak eta gazteak beren osotasunean eta zoriontsu bizi daitezen egiten du lan **Gaztematikak**. Aldi berean, gaitu egiten ditu eta laguntza ematen die autonomoak, askeak eta gizartean modu aktiboan inplikaturako pertsonak izan daitezen;
- b) **Gaztematikaren** lanak **koherentea** eta **etengabea** izan nahi du haurtzaroan eta gaztaroan zehar;
- c) **Gaztematika aisiaren** esparruan (ikasketetako, laneko edo etxeko egitekoetatik nahiz zeregin fisiologikoetatik at geratzen zaigun denboran) aritzen da, **hezkuntza ez-formalaren** ikuspegitik;
- d) **erakundeen lidergoa** izan nahi du **haurren eta gazteen eremuan**, bere helburuak lortzeko ezinbestekotzat baitu haurren eta gazteen egungo eta etorkizuneko bizitzan eragin zuzena duten gainerako sistema publikoekin koordinatuta izatea;

- e) sistema honen **partaidetzaren** aldeko apustua egiten du, haurrak eta gazteak nahiz haiekin lotutako elkarte eta erakundeak sortzen diren prozesuen diseinu, gauzatze eta ebaluazioan sartuta egotea halabeharrezkoa delako;
- f) haurren eta gazteen sustapenerako egokiena **toki-esparrua** dela uste du eta, beraz, sustatu behar diren zerbitzuak hurbilekoak direla, hau da, ondorioz, udalerrian edo auzoan ematen direnak.

SISTEMA PUBLIKOA

Gaztematika Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udalek libreki eta beren borondatez osatzen duten jarduera-sare publiko bat da. Haren helburuak lortzeko, erakunde horiek baliabideak, prozesuak eta emaitzak partekatzeko erabakia hartu dute, baina bakoitzaren autonomia eta eskumenak urritu gabe.

Gaztematikak sustatzearen eta laguntzearen bidea erabiltzen ditu, ez hertsatu edo baztertearena; izan ere, bertan parte hartzen duen erakunde bakoitzaren erantzukizunak errespetatzen eta bultzatzen dira.

Horretarako, **Gaztematikak** guztientzako adostutako jarraibide batzuk eskaintzen ditu gai honetan foru- eta udal-mailan funtzionatzeko, bere partaideek bidea elkarrekin egiteko eta, arian-arian, haurrak eta gazteak sustatzeko lanean guztientzat berdinak izango diren erreferentzia-estandar batzuetara hurbiltzeko.

Gainera, Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenarekin lotutako guztiari dagokionez, Foru Aldundiaren, udalen eta haur eta gazteekin lan egiten duten elkarten arteko koordinazioa ekarri du.

Halaber, **Gaztematikak** bere jarduera agerikoa eta hurbilekoa izateko lan egiten du, hala bere hartzaileentzat, eta ondorioz gizarte osoarentzat, baliagarriagoa eta probetxugarriagoa izan dadin.

ESKAITZEN DITUEN ZERBITZUAK

Gorago ere adierazi dugunez, **Gaztematikak** bere helburuak lortzeko zerbitzu espezifiko batzuk eskaini nahi dizkie Gipuzkoako haur eta gazte guztiei, haien bitartez baliabideak eta laguntza emanaz.

Aurrera jarraitu aurretik, ohartarazi nahi dugu zerbitzuak esatean **ez garela ari ekipamenduez edo zentroez bakarrik**, haurrentzako eta gazteentzako jarduerak bildu eta kudeatzen dituzten halako tresna edo egitura egonkor eta ezaguterraz batzuez baizik.

Zerbitzuak osatzen dituzte, **Gaztematikan** ulertzen diren moduan, alde batetik, astialdiko esku-hartzea ardatz duten jarduerak, ekintza eta eskaintzen multzo koherente batek eta, bestetik, horiek kudeatzen dituzten giza taldeek. Horrek guztiak ekipamendu zehatz bat izan dezake euskarri, edo ez, bertako jarduerak gune desberdinetan edota ingurune birtualetan ere (Internet) gauzatu daitekeelako.

Beraz, Nerabeentzako balio anitzeko zerbitzuaz hitz egiten badugu, ez gara ari zerbitzuaren euskarri material izan daitekeen edo hura fisikoki barnean hartzen duen ekipamenduz (gazteleku izenez ezagutzen dena) bakarrik, gorago aipatutako tresna edo egitura osoaz baizik.

Era berean, ohartarazi behar dugu haurrentzat eta gazteentzat diren erantzukizun publikoko hurbileko zerbitzuez ari garela, eta hauek **6 jarduera-mota** eskaini behar dituztela elkarrekin konbinatuta, betiere **Gaztematika**ren helburuetara ondo moldatuta:

1. **Informazioa:** haurrentzat edo gaztearentzat interesgarriak diren gai ei edo baliabideei buruzko datu baliagarriak ematea.
2. **Orientazioa:** alternatibak identifikatzen eta erabakiak hartzen ikas dezaten, laguntza puntuala ematea.
3. **Bide-laguntza:** erabakiak hartzeko, jarduerak burutzeko eta loturak sortzeko laguntza eta jarraipena eskaintzea; hauek nolabait egonkorrak eta etengabeak izango dira.
4. **Aisia hezitzailea:** jolas-ekintzen bitartez, bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak lortzea edo garatzea xede duten jarduerak burutzea astialdian.
5. **Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak:** **Gaztematika**ren helburuekin lotutako gaietan hurrek eta gazteek iritziak eman, proposatu, erabakiak hartu, erantzukizunak beren gain hartu, kudeatu edo kideekin kudeatu ahal izateko aukerak sortzea eta dinamizatzea.
6. **Kultura-sorkuntzarako eta -produkziorako laguntzak:** hurrek eta gazteek beren sorkuntza- eta produkzio-gaitasuna indartu eta bideratuko dituzten jarduerak eta proiektuak garatzeko eta agerian jarri ahal izateko aukerak sortu eta dinamizatzea.

Horretarako, **Gaztematikak** proposatzen du zerbitzu-multzoko bat abian jartzea eta horiek hartzaileen adinaren arabera egituratzea. Hala, **jarduera-continuum** bat osatuko dute:

- a) **Haurrentzako balio anitzeko zerbitzua**, 12 urtetik beherakoentzat.
- b) **Nerabeentzako balio anitzeko zerbitzua**, 13tik 17 urtera bitartekoentzat.
- c) **Gazteentzako balio anitzeko zerbitzua**, 18 urtetik gorakoentzat.

Gaztematikak, gainera, haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako beste bi zerbitzu-mota jasotzen ditu:

- **Haurrentzako eta gazteentzako informazio-zerbitzua**: informazioa emateaz gain orientazioa eta bide-laguntza ere eskaini ditzake. Informazio-bulegoak eta informazio-puntuak zerbitzu honen modalitateak dira.
- **Haurren eta gazteen ekimenei laguntzeko zerbitzua**: adierazpenerako eta partaidetzarako bideak eskaintzea eta, horrekin batera, sorkuntzarako eta produktiorako bideak eskaintzea ditu xede.

ANTOLAKETA

Jada ikusi dugunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udalek, haurren eta gazteen sustapenaren esparruan koordinatuta eta adostuta jarduteko osatu duten sare bat da **Gaztematika**.

Elkarlanerako borondate hori formalki adierazi zen 2010. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EUDELen (Euskadiko Udalen Elkarte) artean sinatutako protokoloan. Ondoren 59 udalek berretsi zuten.

Ikus dezagun zehatzago **Gaztematika**ren antolaketa-egitura:


- a) **Gaztematika**, lehenik, **udaletan eta Foru Aldundian** haurren eta gazteen sustapenaz arduratzen diren **sail edo departamentuek** osatzen dute. Laburbilduz esateko, **udalak Gaztematika**ren udal-esparruko zerbitzuak eta jarduera sortzeaz, kudeatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen dira; eta aldez, **Foru Aldundiari** dagokio hori bera lurralde-esparruko jarduera eta ekintzetan egitea, bai eta **Gaztematika**ko organo komunei laguntza teknikoa ematea, aholkularitza teknikoa, kanpoko eta barneko harremanak bermatzea, eta haren plangintzaz eta ebaluazioaz arduratzea ere.

- b) **Protokoloa Jarraitzeko Batzorde Misto** bat sortu da, udaletako eta Foru Aldundiko ordezkari politikoez osatua, gure lurraldean haurren eta gazteen sustapenari dagozkion gai guztien inguruko topaketarako eta eztabaida politikorako gune izan dadin. Hau da, gainera, **Gaztematika**ren plangintza onartzeaz, haren jarraipena egiteaz eta haren ebaluazioa balioesteaz arduratzen den organoa.
- c) **Foro Teknikoa**, alde batetik, udaletako eta Foru Aldundiko arduradun teknikoentzat gure lurraldean haurren eta gazteen sustapenari dagozkion gai guztien inguruko topaketarako eta eztabaidarako gunea da. Bestetik, **Gaztematika**ren plangintzaz eta jarraipenaz arduratzen diren pertsonak (**Batzorde Iraunkorra**) aukeratzen dituen eta haien proposamenak balioesten dituen organoa da.
- d) **Eztabaida-mahai** bat osatzea ere aurreikusita dago. Organo aholku-emaile horretan parte hartuko dute Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenaren esparruarekin lotura duten agente guztiak (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, erakundeak, enpresak, profesionalen elkargoak, unibertsitateak...). Mahai honen zeregina da **Gaztematika**ren funtzionamenduaren jarraipena egitea eta bertan proposatzen diren erabakiei eta plangintzei buruz beren iritzia ematea.

- e) Era berean, aurreikusita dago haurrek, nerabeek eta gazteek **parte hartzeko foro** bat edo batzuk sortzea. Etapa horietako bakoitzari egokitutako berezko guneak izango lirateke, behar bezala dinamizatuak, guztiz informatuak eta **Gaztematika**ko gainerako organoekiko benetako elkarrizketaz hornituak.

Antolaketa-eskema hori bera ezarri daiteke udal-mailan ere.

2. grafikoa. Udal mailako Gaztematika



3. grafikoa. Gaztematikaren arkitektura



ZER DA GAZTEMATIKA?

